



GERNUA JASOTZEA PARASITOAK DETEKTATZEKO

BEHARREZKO MATERIALA

Ontzi esteril kontserbatzailerik gabea
(aho zabaleko flaskoa)



LAGINAK HARTZEKO TEKNIKA

1. Ariketa fisikoa egin (adibidez, eskailera-tarte batzuk igo eta jaistea) eta 10:00etatik 14:00ak arte lortutako gernuaren zati terminaletik jasoko da gernua.
2. Emandako ontzian gutxienez 100 mL-ko bolumena jasoko da.
3. Lagina jaso ondoren, identifikatu laborategiaren etiketa duen ontzia eta lagina hartu den eguna eta ordua.
4. 2-8 °C-tan hoztuko da laborategira bidali arte.

KOPURUA

- Gutxienezko bolumena: 100 mL.

LABORATEGIAN ENTREGATZEKO EPEA

- Gehienez: 24 ordu.
- Laborategira berehala bidaltzen ez bada, hoztu 2-8 °C-tan.